



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ALTZIBAR

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2018-10-02	19:00	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona, Iosune Cousillas, Eneritz Arbelaiz			
Herritarrak: 32	Euskaraz: 29		Elebitan: 3 pertsonari itzuli die	
	Emakumezkoak: 15		Gizonezkoak: 17	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 19	51-65 urte: 8	>66 urte: 5

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Eneritzek egin du aurkezpena. Ez dago galderarik.
Aurrekontuak 2020	Eneritzek egin du aurkezpena. Ez dago galderarik.
Oiartzun	Eneritzek egin du aurkezpena. Kultur etxea eta Landetxeko plaza aipatu denean auzokide batek aipatu du bere haserrea egituraren aurrekontuarekin aipatuz zonalde hori nahiko berria dela eta zegoen bezala utzi behar zela. Erantzun da plazarekin arazoak zeudela aspalditik, ura garajeetara sartzen zelako. Obra honekin arazoa konponduko da. Bestalde, zoriondu da aurrekontuaren kudeaketa ona dela eta proiektu hau egiteko ez duelako Udalak berrirori zorpetu behar.
Auzoa	Eneritzek beheko auzoko urbanizazioa azaldu du. · Auzoko batek frontoia egingo den galdetu du, ea noizko egingo den frontoia, 25 urtez eskaka dabilzala eta zergatik oraindik ez den egin eta zergatik ez den azaldu zergatik Altzibar auzoan ez den oraindik hau gauzatu, fontoia edo Altzibarrentzako areto bat, bere ustez klareneko aldean beharko lukela beti hor egiteko eskatu delako eta orain parking batekin gatzela. Erantzun da Klareneko



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



eremu horretan planeamenduan etxeak egitea jasoa dagoela, baina URAK ez zuela utzi. Egoera zaila dago eremu horretan.

- Bestetik, Eneritzek Cadarsoko egoera explikatu ondoren eta lurraren ebaluazioko emaitzak ezagutu arte ezin dugula jakin zer egin daiteken, auzoko batek ere esan du zurrumurroak daudela Cadarson egingo den Karabanen aparkaleku bat edo frontoiren bat. Oso haserre ikusi da kontu honekin, batetik ez duela nahi hor frontoirik egitea frontoi-areto horrek klarenen behar duelako izan eta ez dutela onartuko karabanen aparkalekurik. Esaten zaio karabanen kontua aurreko auzo batzarretan egindako ekarpena zela. Udaletik beti esan da lurraren ebaluazioaren emaitzak jakin arte ezin dugula planteamendurik egin. Auzotarren artean eztabaida sortu da gai honengatik, denek ez baitute iritzi bera.
- Kajero bat jartzeko eskatzen du auzokide batek. Eneritzek erantzun du hau aurreko urtetan ere eskatu dela eta udaletxetik eskatu zaiela banketxeei. Hala ere, erantzun bakarra jaso dugu eta hori ezezkoa.
- Paperontzi nahiko ere ez daudela esan dute. Erantzun da apropos daudela gune zehatz batzutan bakarrik.
- Martintxo bidea Oiartzun aldera itxita dago pibote batzuekin. Hala ere, motoak, txirrindak eta patinak ibiltzen dira abiada handian eta bi zentzutan. Momentu oso larriak bizitzen dira. Hau aztertuko dela aipatu da.
- Komun publikoa ere eskatzen dute, ekarpena jasoko genula esaten zaie.
- Komunikazioa hobetzeko Irun eta Hondarrabiarekin autobusa edo jartzea aipatu da. Printzipioz Arraguako topoa dagoela Oiartzungo eremuan bi zonalde hauekin komunikatzeko, baina esaten zaie Aldundiarekin mugikortasunaren inguruan hainbat eskaera bideratu nahi direla, eta hau ere apuntatuko dugula. Izan ere, Donostiara zuzeneko autobusa eta Ospitalera ere autobusa eskatu nahi dugu.
- Zoriontzen digute etortzeagatik, bilera hauek egitea ez baita derrigorrezkoa eta Karrikako bidegorriarengatik. Oso txukuna geratu dela aipatu da.
- Olaldeko lokalen inguruan galdetu dute. Azaltzen da oraingoz ez dagoela ezer prestatua. Hasiera batean erdiak bulego batzuetarako gordeta zeuden, baina azkenean ez dira etorriko, aztertuko da ea zeozer egin daitekeen.
- Xorrolako ibilbidea aztertzeke eskatu dute Altzibarren ibilbidea luzatzeko Olalde aldera. Erantzun da kontratua egin den honetan aztertu dela baina ibilbideak



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



denbora askoz gehiago luzatzen zuela eta baztertzea erabaki zen luzapen hori egitea.

·Agerrealden egingo diren etxeei buruz Eneritzek azalpenak emann ditu. Galderaren bat egin dute bai aparkalekuen kontuarekin eta bai urbanizazio kontuarekin. Erantzun da oraingoz geneukan planoak zirriborro bat dela eta oraindik behin betiko planoak falta direla lehenengo fasean daudelako eta proiektua egiten hari direlako. Esaten zaie honekin bere egunean hasten direnean aparkaleku bat jarriko dela obrak irauten duen bitartean.

·Xorrolako parada ez dagoela ondo eta beste kokaleku bat beharko luke nahiko arriskutsu dagoelako. Arrisku hau sortzen da jendeak ez duelako errespetatzen abiadura eta bidegurutze batek dakarren arreta.

·Bidegurutze hontan bertan dagoen zebra bidea eta semaforoa ez dagoela ondo kokatua esaten dute, baina beraien artean ere eztabaida sortzen da ez delako erabiltzen semaforo hori.

·Olaldeko haur-parkean txapak daude konpontzeko lorategiaren bueltan, zerrendan jarriko dugula esaten diegu.

·Karenetik bidegorrira doan zubiko baranda puskatuta, zerrendan jarriko dugula esaten diegu.

·Agerrealdeko atzea garbitzea eskatzen dute, esaten zaie garbitzen dela baina maiz zikintzen dutela, azterzten hari garena pixka bat hobeto txukuntzea, bai zakar ontzi eta bai eserlekuak konponduz.

·Zakur kakekin eta pixarekin kexak daude eta nagusiak isundu egin behar direla esaten digute, bigilantzia gehiago eskatzen digute. Gure erantzuna da hau ez dala erreza, momentuko gauza izaten dalako eta isuna jartzeko bertan egon beharko litzateke.

·Zabor bilketan gaizki egiten duenari isuna jartzea proposatzen da, erantzuten zaie berriro martxan jarri dugula hasierako kontrola eta ea eragiten dugun hobetzea.

·Bidegorriko seinalizazioarengatik galdetzen digute esanez berritu egin behar dela, erantzuten da jada lan hori egiteko prozesua martxan dagoela.

·Orain dela gutxi Agerrealdeko bloketan euria egin zuen batean garaje batzuetan ura sartu zen eta askotan gertatu dela. Erantzuten zaie begira gabiltzala euri uren



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	hoditeria nola dagoen eta “arketen” egoera, asmoa dugula hau behingoz konpontzea eta aztertzen gabiltza. ·Agerrealde 6 baxuan motoak daude eta esplikatzen zaie pribatua dela eta ezin dugula isunik jarri. Motoak aparkatzen dituztela Elkartearen larrialdi irteeran ere, berriz, esaten zaie guk ezin dugula isunik jarri. Gure proposamena da komunitateak begira dezala eta kartelak jartzea lehen neurri bezala. · Toki berean goiko kaletik datozten eskaileratan barandilla bat jartzeko eskatzen digute, begiratuko degula esaten diegu. ·Done Petri kalea ea berritzeko zeozer egingo den galdetzen digute, esaten zaio hasieran urbanizazioko proiektu esplikatu dugun horretan sartuta dagoela. ·Bidegorriko arbolak berriro identifikatzeko proposamena gogoratzen digute. Lanen zerrendan sartua dugula esan da. ·Bidegorriko komunaren argiteria hobetzea eskatzen digute, aztertzekotan geratu gera.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,57
bilera ongi gidatu da	9,61
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9,48
Auzotar kopurua	7,40
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,14
Saioa probetxugarria izan al da?	9,00
Egunaren egokitasuna	9,42
Orduaren egokitasuna	8,90
nLekuaren egokitasuna	9,48
Batezbestekoa	9,00